



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Tortura: Espainiar trantsizio
demokratikoaren muga Euskal
Herrian**

Pauline Guelle

111-115 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.02.15>



Tortura: Espainiar trantsizio demokratikoaren muga Euskal Herrian

Guelle, Pauline

*Univ Pau & Pays de l'Adour, Aix Marseille Univ, Université de Toulon, CNRS, DICE, IE2IA,
Pau, France.*

pauline.guelle@gmail.com

Laburpena

Espainiar estatuak trantsizio demokratiko bat ezagutu du. Franco diktadorea hil zenetik (1975) diktadura amaitu zen. Trantsizio demokratiko bat izan zen (1975-1982), baina Euskal Herrian oinarrizko eskubideen urraketek segitu zuten; horien artean : torturaren erabilpena. Euskal autonomia erkidegoan, 4113 tortura kasu zenbatu ziren 1960tik 2014 arte. Ikerketa honetan, torturaren segitzeak sistema demokratikoaren ahuleziak erakusten ditu. Alde batetik, Espainiar estatuak trantsizio demokratiko mugatu bat ezagutu zuen ; beste alde batetik demokrazia sendorako gabeziak erakusten ditu.

Hitz gakoak: Tortura, Justizia trantsizionala, Trantsizio demokratikoa, Oinarrizko eskubideak, Euskal Herria, Espainia.

Abstract

Spain knew a democratic transition between 1975 and 1982. The dictatorship ended after the death of Spain's dictator Franco in 1975. A democratic transition began but some fundamental rights are still squeezed. In fact, in Basque country torture persisted during the transition, and after its end in 1982. The Basque autonomous community has counted 4113 cases of torture between the last years of Franco's dictatorship (1960) and nowadays (2014). On the one hand, the analysis of torture in Basque country shows the limits of Spain's democratic transition. On the other hand, we are going to demonstrate that torture shows the weakness of democracy.

Keywords: Torture, Transitional justice, Democratic transition, Fundamental rights, Basque country, Spain.

1. Sarrera eta motibazioa

Euskal Herria hiru eremu instituzional ezberdinetan banatua den lurraldea da. Espainiar estatuan, bi komunitate autonomo bereizten dira. Alde batetik Nafarroako Foru Erkidegoa ; bestalde, Euskadiko Autonomia Erkidegoa. Berriz, Frantziar estatuan gelditzen diren hiru probintziak instituzio batean biltzen dira : Euskal Hirigune Elkargoa.

Bi estatu demokratikoetan banatua izan arren, Euskal Herriak hainbat giza eskubideen urraketa ezagutu du. Espainiako Gerla zibiletik (1936) gaur egun arte; lurralde honek konfliktoan oinarritutako historia bat ezagutu du. Gerla zibila bukatu eta, frankismoaren garaian biderkatu ziren gizakiaren aurkako krimenak gertatu ziren. Frankismoaren amaiera Franco diktadorearen hiltzearekin gauzatu bazen ere, giza eskubideen urraketa ezberdinek segitu zuten bai trantsizio demokratikoaren garaian, baita ere trantsizio demokratikoaren ostean.

Tortura, giza eskubideen urraketa bat izan da. Orotara frankismo bukaeratik (1960) gaur egun arte Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 4113 tortura kasu aztertu dira (Beristain et al., 2017). Ikerketa honek torturaren errealitate bat argitara eraman du; Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko datuak kontutan hartu gabe. Lan hau, EAEko gobernuak finantzatu zuen "Bake plana"-ren baitan eta EHU/UPV-ko ikerle ezberdinek parte hartu zuten. Lehen aldiz analisia zientifiko zabal bat egin da. Gainera, inkestaren baieztatzeko, *Istanbulgo Protokoloa* (Nazio Batuen erakundea, 1999) berrehun pertsonari aplikatua izan zaie. Nazioarteko protokolo hau tortura kasuak baieztatzeko tresna berria da. Azterketa honek balio juridiko bat du. Horregatik, epaitegien aitzinera eraman daiteke torturaren frogara.

Inkesta horren bidez, torturaren errealitateak dimentsio zientifiko ukaezin bat hartu du. Argiki erakusten du Espainiar estatu demokratikoak (1978tik edo 1982tik aitzina gaur arte) tortura erabiltzen zuela.


2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak (Azpialak eta zerrendak)

Tortura aztertzeko hainbat ikuspuntu eta ikerketa gurutzatuko dira. Orain arte, arlo ezberdinetan gaia jorratua izan da :

- Torturaren errealitatea Euskal Herrian : Azken lan esanguratsua EHU-ko ikerleek eraman zuten; horrek ez du kentzen lehenago bilketa bat eginga izan zela Euskal Memoria erakundearen eskutik non kasu gehiago (5000 kasutik harago) argitaratzen diren Euskal Herriko lurraldea bere osotasunean harturik. Azkenean, tortura demokraziaren porrotaren erakuslea dela frogatuko da.
- Justizia trantsizionala : Justizia trantsizionalak, egiaren eskubidea, justizaren eskubidea, erreparatze eskubidea eta errepikapen ezaren eskakizuna borobiltzen ditu. Espainiako trantsizioa, hirugarren uhineko demokratizazio estatu modelo bat bezala (Huntington, 1991) aurkeztua izan zen. Geroztik, trantsizio gatazkatsu bat ezagutu zuela frogatu zen (Baby, 2012). Espainiako trantsizioa ez zelako Justizia trantsizionaleko tresnetan oinarritu, bere demokratizazioaren prozesua ez du lortu bere osotasunean. Hemen, Espainiar estatuko amnistia legea (1977) eta amnesia ‘*Pacto de olvido*’ estrategietan oinarritutako trantsizioak ez duela demokraziarako oinarririk ekarri..
- Inkomunikazioaren sistema : Hainbat ikerlek inkomunikazio erregimenaren lanjerrak azpimarratu dituzte (Argituz, 2009). Gainera, nazioarteko eta gobernu kanpoko erakundeek informazio hau baieztatu dute Espainiar estatuari dei eginez. Horren harira, Europako kontseiluak (CPT) 2017. urtean galdegin zion Espainiari inkomunikazio sistemarekin bukatzeko, atxilotuen oinarrizko eskubideak ukatzen zituelako. Hemen, inkomunikazioa, tortura ahalbidetzen duen mekanismo edo espazio bezala aztertzen da. Inkomunikazioaren sistema, terrorismoaren aurkako borrokari lotzen den tresna da.
- Torturazailleen inpunitatea : Estrasburgoko auzitegiak, 2001 eta 2007 urteen artean, zazpi kondena ezarri dizkio Espainiako estatuari tortura ez ikertzeagatik. 2018. urtean, lehen aldikoz Espainia epaitzen zuen tratu txarreatatik; Igor Portu eta Mattin Sarasolaren kasuarentzat (CEDH, 2018). Aldiz, tortura kasuei begira Espainiar estatuko auzitegi gorenak hogeitaz kondena baizik ez zituen ezarri; gainera, denbora tarte mugatu batean iragan ziren, erran nahi baitu 1979 eta 1992 urteen artean.

3. Ikerketaren muina

1. irudia. Tortura kasuak Euskal Autonomia Erkidegoan (Beristain eta al., 2017) eta trantsizioa



1. taula. Espainiako trantsizioaren kronologia intrakonstituzionala – Modeloa (Massias, 1999)

1. etapa	1a etapa	2. etapa	3. etapa	4. etapa	5. etapa	6. etapa
	Krisi konstituzionala	Trantsizio zuzenbide aurre-konstituzionala	Trantsizio zuzenbide aurre-konstituzionala	Trantsizio zuzenbide post-konstituzionala	Trantsizio zuzenbide post-konstituzionala	Konstituzio zuzenbidea
Errepublikatik Frankismora	Franco-ren diktadura <i>1939-1975</i> * Euskal Herria: Estatu berezia Bizkaia eta Gipuzkoan – apiril ekaina 1975 -	Dekontstituzionalizazioa 1975-1977 Juan Carlos Espainiar erreinuaren erregea. Erreforma politikoa Arias Navarrok bere kargua uzten du eta Adolfo Suarez-ek hartzen du Frankisten legedia deseuzten da Alderdi politikoen legalizazioa (PCE) Amnistiaren legea * Euskal Herria: ETako kideen grazia eta ihesa 1977 urtean	Konstituzionalizazioa 1977-1978 Batzar konstituzioegilearen bozkatzea Komisio konstituzionala Amnistia orokorraren legea Konstituzioaren onarpena deputatuengandik Erreferendum konstituzionala * Euskal Herria : Autonomien sortzea (Nafarroa eta Euskadi)	Sendotze demokratikoa eta pazifikazioa 1978-1982 : Soarez-en gobernua 1981 Estatu golpearean porrota (Tejero) * Euskal Herria : Konstituzioaren kontrako mugimendua GAL Bortizkeria politikoa	Espainiako demokrazia sendotze prozesua 1982-2011 : Europar komunitate ekonomikoan integratua (1986) * Euskal Herria: Bortizkeria politikoa 18/1998 instrukzioa Prentsaren zentsura Alderdi independentisten irabaztea Batasuna alderdiaren ilegalizazioa	2011- 2018 : Monarkiaren krisia Autonomien krisia * Euskal Herria : ETaren amaiera
		Erregimen aldaketarako zuzenbidea		Sendotze demokratikoaren zuzenbidea		Demokrazia konstituzionala
	Autoritarismo konstituzionala	Trantsizio demokratikoaren konstituzio zuzenbidea				

4. Ondorioak

Hemen, tortura erabilia izan da demokrazia sendoaren erakuslea neurtzeko tresna bezala. Euskal Herrian, Espainiar trantsizioak ez dio torturaren erabiltzeari amaierarik eman. Trantsizio garaian, tortura kasu handiak, konparazione 1975. urtean, kopuru biziki esanguratsuan agertzen dira.

Trantsizio bortitza izan dela azpimarratu dugu. Tortura kasuak trantsizio garaian biderkatu ziren. Horrez gain, torturak iraun du trantsizio demokratikoa bukatu eta gero. Horrek erakusten du trantsizioak ez dituela behar ziren baldintzak bete torturarekin amaitzeko eta sistema demokratiko sendo bat plantan jartzeko.

Justizia trantsizionalaren tresnak ez direlako aplikatu, trantsizio bortitz eta gatazkatsu bat ezagutu du Espainiak, bereziki Euskal Herriarekiko loturarekin. Amnistia eta amnesian oinarritu den trantsizioak ez du bermerik ekarri demokrazia sendo bat eraikitzeko.

Trantsiziotik harago inpunitateak segitu du. Nahiz eta Europar auzitegiak, berriki, lehen sententzia bat ezarri Portu eta Sarasola kasuan, tratu txarregatik baizik ez da. Tortura ez da izendatua. *Tribunal Supremok*, berriz, hogeit hamar sententzia 1979 eta 1992 urtean artean; tortura kasuen eskema ikusita desoreka handi bat bada. Sistema kasu horietan sistema judizialak ez duelako inkestarik egiten.

Ikerketa honen bidez, tortura Espainiar estatu demokratikoaren ahuleziaren marka dela erakutsia izan da. Lehenik, Espainiar estatuaren trantsizioa mugatua izan zela erakusten duelako; bigarrenik, oinarritzko eskubideentzat eraginkortasunik gabeko babes sistema plantan ezartzen duelako.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Justizia trantsizionalaren tresnak, trantsizio demokratikoa eta gero erabiltzen ahal diren tresnak dira. Euskal Herrian, eta torturaren kasuan, justizia trantsizionalak ate ezberdinak zabaltzen ditu. Orain arte, EAE-n egindako txostenaren bidez (Beristain eta al. 2017) egiaren eskubidea nagusitu da. Horrez gain, Hego-Afrikan eginga izan den “Egia eta berradiskidetze” batzorde eredu har genezake gure ikerketa segitzeko; edo Argentinan egindako *Nunca más* txostena (Conadep, 1986).

Trantsizio demokratiko honek irakaspenak ekartzen ahal dizkigu gaur egun existitzen diren estatu demokratikoez. Alabaina, trantsizio demokratikorik gabeko herri batzuetan, tortura baliatzen da. Bi adibide jarriko ditugu; Frantziar estatua Algerian eta Estatu Batuak Guantanamo presondegian. Demokraziaren sendotzeak, trantsizio demokratikotik harago ikertzen ahalko lirarteke.

6. Erreferentziak

Argituz, AEN, Ekimen Elkarte, GAC, Jaiki-Hadi, OME, OSALDE, Departamento de Psicología Social (EHU/UPV) (2009) *Incommunicado detention and torture : assessments using the Istanbul protocol*.

Baby, S. (2012): *Le mythe de la transition pacifique : violence et politique en Espagne (1975-1982)*, Casa de Velazquez.

Beristain, C. M., Etxeberria, F. eta Pego L. (2017): *Proyecto de investigación de la tprtura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*, Por encargo de : Secretaria General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperacion.

Conadep txostena (National commission on the Disappearance of Persons): (1986), *Nunca más*, London, Faber and Faber Index on Censoship-ekin elkarturik.

Huntington, S P. (1991): *The third wave : democratization in the late twentieth century*, University of Oklahoma Press.

Massias, J-P. (1999): *Droit constitutionnel des Etats d'Europe de l'Est*, 2. edizioa : PUF.

OHCHR (1999): *Istanbul protocol : manual on the effective investigation and documentation of torture and other cruel, inhuman or degrading treatment or punishment*, United Nations.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak, Jean-Pierre Massias nire ikerketaren zuzendariari, ematen dizkidan aholku eta argibideentzat. Esker bereziak eskaini nahi nizkieke Francisco Etxeberria eta Laura Pego EHU/UPV-ko kideei, egin duten lan ikaragarriarentzat eta ikerketatik harago ireki duten atearentzat. Segitzeko, ikerketa kide eta lagunei besarkada estu bat.